

DOKTOREGO AURREKO LAGUNTZEN DEIALDIA, **ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE** **MINISTERIOARENA:** **FPU 2019 PROGRAMA**

Laguntzen ezaugarriak:

Ministerioak laguntzen deialdia argitaratu du, edozein arlo zientifikotako doktorego programetan ikertzaileak prestatzeko. Helburua da onuradunei bidea erraztea etorkizunean unibertsitateko irakasle izateko goi mailako hezkuntzako eta ikerketa zientifikoko Espainiako sisteman.

850 laguntzatarako deia egin da. Horietatik, 17 gorde dira % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikertzaileentzat.

Kontratuen ezaugarriak:

Doktorego aurreko kontratuek gehienez 4 urte iraungo dute (6 urte, desgaitasuna duten onuradunen kasuan) eta onuradunen eta UPV/EHUren artean egingo dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluari jarraituz.

Laguntzak emateko, doktorego aurreko kontratuek gutxienez urtebeteko iraupena izango dute. Onuradunek hilean 1.151,97 euro gordin jasoko dituzte, guztira 12 ordainketa eta aparteko bi ordainsari.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Lehen fasea:

Lehen fasean, laguntza bakoitzeko, gehienez, hiru hautagai aukeratuko dira lehiatzen diren ANEP arloaren barruan batez besteko nota haztatu hoberena dutenen artetik.

GARRANTZITSUA: Jarraian zehazten diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea ixteko datan bete beharko dira.

Baldintza akademikoak:

- Doktore titulurik ez izatea.
- UPV/EHUren doktorego programa batean matrikulatua egotea 2019/2020 ikasturtean.
- Edo, bestela, master tituluaren jabe izatea edo 2019/2020 ikasturtean matrikulatuta egotea 2020/2021 ikasturtean doktorego programa baterako sarbidea emango duen master batean.

Ikasketen amaiera datari buruzkoak:

AZKEN EGUNA	IKASKETA MOTA
2016/01/01	Lizentziaduna, ingeniaria eta arkitektoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2015/01/01	Diplomaduna, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2015/01/01	180 kredituko graduiko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2016/01/01	240 kredituko graduiko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2012/01/01	Aurreko ataletan adierazitako ikasketak egiten ari zirelarik 2012/01/01etik 2016/01/01era bitartean 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzen egon direnak.

Espediente akademikoko batezbesteko gutxieneko notari buruzkoak:

Irakurri deialdiko 8. eta 9. artikulua, titulazio maila bakoitzerako eta jakintza adar bakoitzerako batez besteko gutxieneko nota ikusteko, eta jakiteko nola kalkulatu den.

Zalantzak edo galderak notamedia.uni@ciencia.gob.es helbidera bidali ahalko dira.

Bigarren fasea:

Hautagaiek dokumentazioa aurkezteko epea lehen hautaketa fasearen behin betiko ebazpenean finkatuko da.

Tesi zuzendariak bete beharreko baldintzak:

- Eskatzaileek tesi zuzendari bana eduki beharko dute.
- Zuzendariak UPV/EHUrekin izan beharko dute kontratua eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 4 urteak amaitu arte.
- Zuzendari bakoitzak eskaera bakarria bermatu ahal izango du. Baldintza hori bete ezean, zuzendari horri dagozkion eskaera guztiak baztertuko dira.

GARRANTZITSUA: Proposatutako tesi zuzendariak UPV/EHUko doktorego programa bateko irakasleak izan beharko dira, Master eta Doktorego Eskolak halakotzat aitortuak. Eskakizun hori bete ezean, ezin izango da egin UPV/EHUren eta onuradunaren arteko kontratua.

Eskaerak aurkezteko epea:

2019ko urriaren 24tik azaroaren 14ko 14:00ak arte

Eskaera aurkezteko era:

Eskatzaileak [hemen](#) sakatu behar du eta bertan eskuratuko duen formularioa bete beharko du. Behin eskaera baieztatu ondoren, bide telematikoa bitartez erregistratu beharko du. Horretarako, DNI-e agiria, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa edo hitzartutako pasahitzak erabiliko dira (sinadura elektronikorik ez duten eskatzaileei erregistratzean emango zaizkie pasahitzok).

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

LEHEN FASEA	BIGARREN FASEA
Eskaera egiteko formularioa Ziurtagiri akademikoa	Doktorego programako matrikularen edo aurreonarpenaren gordekina Eskatzailearen CVa Tesi zuzendariaren CVa Ikertalde hartzailearen historia zientifikoa Prestakuntza proiektuaren eta doktorego tesiaren memoria

Kontsultak egiteko kontaktua:

Hautagaiek mezu elektronikoko bidez jo beharko dute Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministeriora:

- Deialdiari buruzko kontsultak: solicitantes.fpu@mecd.es
- Batez besteko notaren kalkuluari buruzko zalantzak: notamedia.uni@ciencia.gob.es

UPV/EHUko izapidea:

Lehen fase honetan **ez** da beharrezkoa izango Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera balidatzea laguntzaren atxikipen ikastegiaren legezko ordezkari gisa.

Informazio gehiago:

Sakatu [hemen](#).